

## **Baina gu ere... gazteak izan ginen!**

Gazteak, aisialdia eta euskara atzo eta gaur

Jone Miren Hernandez

**G**azteen euskararen erabilerak kezkatzen gaitu. Baina kezka horri aurre egiteko planteatzen diren irtenbideak, zein nolako oinarria dute? Irtenbide edo proposamen hauek baloratzera sartu gabe, komunikazio honek bi proposamen zehatz landu nahi ditu.

Lehenik eta behin, kezka hori ikuspegi diakroniko batetik aztertu nahi da abiapuntua hau izanda: egun, orain dela 25 urte baino gazte euskaldun gehiago daude. Zertan aurreratu da? Zertan ez (hainbeste)? Baina galdera horiei lotuta beste zeregin bat sortzen zaigu: balorazio hori egin ahal izateko (eta bestelako proposamenak osatu ahal izateko) egungo gazteaz, aisialdiaz eta hizkuntzaz mintzatu behar dugu, hiru nozio horien definizioan aldaketa nabarmenak eman baitira azkenengo 25 urteotan.

Eta hiru nozio horiek, hain zuzen ere, izango dira komunikazioaren ardatza, hiruren pisua aldarrikatzeko eta, bereziki, gazteak eta aisialdiak duten protagonismoa (euskara aztergaia izanda ere) nabarmentzeko asmoz. Gazteen erradiografia osatzea, gazte izatearen definizioan aisialdiak duen pisua neurtzea eta, azkenik, hizkuntzak (edo hizkuntzek) bere identitatearen osaketan betetzen du(t)en papera ezagutzea litzateke hitzaldiaren helburua. Ikuspegi zabal hau, aurrera begira eman beharreko urratsen definizioan lagungarria izango delako ustearekin.